

“Le camp de Gurs, 1939-1945. Un aspect méconnu de l’histoire du Bearn” liburu baliotsuaren ondoan oso lan bikaintzat jo dezakegu hizpide dugun liburuan kontzentrazio zelai horri eskeintzen dioten atala. Era berean, Amerika aldera gauzatu zen bigarren erbestaldiaz eta hori laguntzeko sortu ziren SERE nahiz JARE bezalako elkar-teez ikuspegi berri hainbat hedatzen dizkigute liburu horren azken kapituluetan. Eremu historiko horiek, baita aurreazken kapituluarena den “EAJ eta CCSE” delakoaren arteko harremanez aritzen denak, aurrekari zenbait izan bazituzten ere, oraingoan bere leku eta esanahi berritua hartzen dute euskaldunen erbesteratzearen fresko orokor honetan. Amaitzeko, ezbairik gabe, 1936-1939.ko gerraren ondorioz suertatu zen erbesteratzearen historiara hurbildu nahi duen orok, hemendik aurrera liburu hau oso haintzat hartu behar duelakoan nago.

Josu Chueca



BREVE historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca)

Iris M. Zavala (coord. General). – Barcelona : Anthropos, 2000. - Vol. VI. – 20 cm. – (Pensamiento crítico/Pensamiento utópico). - ISBN: 84-7658-402-4

Azken urteotan literatur kritika espainiarraren esparruan argitaratu den libururik eta ekarpenik garrantzitsuenetakoa bezala agurtu behar dugu liburu hau. Liburu hau dukegu literatur kritikaren eremuan saiorik garrantzitsuena estatu espainiarreko nazionalitate eta hizkuntza arteko aniztasuna bere konplexutasunean aurkezteko. Are gehiago, Iris Zavalaren sarrera teoriko garrantzitsuak (“No hay cosas pequeñas”) efektu oso onuragarria du nazionalitateen eta generoen arteko ezberdintasun eta erlazioak agenda politiko nazionalista tradizionalen mendetasunetik askatzeko. Gerora liburu hau eredutzat hartu beharko litzateke antzeko proiektuak gararazteko emakumezkoen literaturaz beste esparrutan ere estatu espainiarreko literaturen aniztasuna azaldu nahi bada. Oraindik ere bada beste pauso bat hartu beharra amaieran azalduko dudana bezala, baina egun bilduma hau “state of the art” dugu.

Hiru literatur nazional aztertzen dira liburu honetan, katalana, galiziarra eta euskalduna, ordena horretan. Literatura hauek elkarrekin dituzten berdintasun eta diferentzietatik aztertzeke beste liburu oso baterako materiala eskaintzen digute liburu honetan barneratutako artikuluek. Hala ere, konparapen honek gidatuko du gure kritika, liburu bere osotasunean aurkeztu eta irazkitzeko berau baitugu biderik emankorren.

Lehen irakurraldi batean, hiru ezaugarri nagusi komunean agertzen dizkigute hiru literatur tradiziook. Lehenik, hiru literaturek dagite aipu, motz edo luzeagoa, Erdi Aroan emakumezkoen literaturek izan zuten lehen loratzeari. Sekzio katalanak artikulua oso bat du Erdi Aroko “trobairitz” edota emakumezko trobadoreei buruz (Isabel de

Riquer “Las trobairitz”). Kasu galiziarrean aipua oso zehatza da eta era berean deitogarria “hipotéticamente, con la real creatividad femenina de las anteriores *cantadeiras* gallegas de las que habla la historia pero de las que no quedaron textos literarios” (Carmen Blanco 177). Kasu euskaldunean erreferentzia oso zeharkako batek erabakitzen du auzia (Carmen Larrañaga Odriozola 405). Hala ere, bertsolaritzaren historiék argi azaltzen dutenez, eta Milia Lasturkoak eta Santxa Hortizek XV. mende hasieran kantatutako “endetxak” ondo adierazten dutenez (Michelena, *Textos Arcaicos Vascos* 75-79), Euskalerrian ere bazen tradizio sendoa eta pena da tradizio honek ez espazio berezirik hartzea, katalanak egin bezala. Dena den, aztertzea da zergatik hiru literatur tradizioek Erdi Aroan ezagutzen duten pizkundeak ez duen jarraitzen modernitatean, hain zuzen inperio gaztelarra eta bere hizkuntza nazionala, gaztelera, hedatzen diren ahala. Emakumezkoek literatura sendo bat gaztelerez garatzeko aukera ez badute ere, Maria de Zayas edota Sor Juana Inés de la Cruz-en kasuek frogatzen dutenez, emakumezkoen idazkera garatzen da gaztelerez, hizkuntza periferikoetan desagertzen den heinean berean. Arazo hau, hiru literaturak elkarren kontra irakurri ahala argi azaltzen da, eta liburu honek arazoari erantzuten ez badio ere, hain zuzen arazo hau lehen aldiz bere konplexutasun historikoan azaleratzen laguntzen du. Zentzu honetan, Carmen Blanco-k bere artikulua sarreran dioskunak, hiru literaturaren historia komuna bezala letu ditzakegu:

En la historia de la literatura gallega se distinguen tres grandes etapas. La primera, la del florecimiento medieval del período gallego-portugués en el contexto de una sociedad monolingüe hasta la mitad del siglo XIV, momento en que se introduce en Galicia el castellano y comienza el declive (finales del XII-XV). La segunda, la de la larga decadencia de los tres siglos oscuros (XVI, XVII y XVIII) que coinciden con la Edad Moderna y la extensión del proceso social del bilingüismo diglósico. Y la tercera, la de la progresiva recuperación y consolidación de una literatura de resistencia que irá adquiriendo poco a poco pretensiones de literatura nacional; (175)

Bigarren berdintasuna zera datza, alegia beste literatur historia orokorrek –gaztelerezkoek zein beste hizkuntza periferikoetakoek– jasotzen ez duten gertaera historikoa: patriarkia historikoko literatura erabat erregulatu duela eta beraz emakumeek literaturara izan duten sarbidea historikoki mugatua izan dela. la gaur egundaino, tradizio bat baino, salbuespenezko kronika bat izan da emakumezkoen literatur historia. Hala Rosalía de Castroren kasua, hemeretzigarren mendeko literatur galiziarrean, zein Mercè Rodoreda-rena hogeigarren mendeko literatur katalanean, benetan dira aipagarri. Salpuespentasun horretatik abiatu badira ere, bi idazleok bakoitzaren literatur kanona erabat definitu eta itxuratu baitute, eta beraz kanon horien oinarri eta erdigune bihurtu. Bi idazle hauen azterketak azaltzen du, beste ezerk baino gehiago, zein puntutaraino izan den emakumezkoen literatura salbuespenezko kronika luzea: bi idazleok bizi izan ziren erbesteturik beren aberri propioetan (Castro) edota atzerrian (Rodoreda), eta hala ere, erbestetasun erretokikako horretatik, biek eraldatu zuten bakoitzaren literatur tradizioa. Kathleen MacNerney-k Rodoredari eskainitako artikulua (“Mercè Rodoreda”) eta Kathleen N. March-ek Castrori eskainitakoa (“Rosalía de Castro”) oso dira argigarri zentzu honetan.

Erbestetzearen kondizioa azpimarratu nahi dut, izan ere liburu honek, bere artikulua gehienetan, behin eta berriro errepikatzen duen kronika kontraesankorra zera dugu: hemeretzigarren mendeaz gero berrindartzen den emakumezkoen idazketa, lekuan-lekuko mugimendu nazionalista politikoez bultzatuta indartzen bada ere, hala ere, kultura nazionalista horiek berek erbesteratzen dute emakumezkoen idazketa. Zentzu honetan Rosalía de Castro-ren kasu ez hain ezaguna aipagarria da. Kathleen N. March-ek dioten bezala, nazionalismo galiziarrek “Rosalía” literatur eta kultura galiziarren ama sinboliko bihurtu bazuen ere, haren artikulua batek sortu zuen polemika eta indignazio nazionalista zela eta, azkenean Castro-k, bere bizitzaren amaian, gali-

ziera abandonatzea erabaki zuen eta gazteleran erbesteratzea, hala *En las orillas del Sar* gazteleraz idatziz, ez galizieraz. Castro-k gazteleran topatutako erbestea irudikatzen zait liburu honetako epitome eta sinbolo giltzarri. Puritanismo katalan nazionalistak Rodoredari eragindako diskriminazioak ere, Kathleen MacNerney-k ondo dokumentatzen ditu bere artikuluan.

Hirugarren ezaugarri bateratzailea, demokrazia eta literatur arteko elkarketa historikoak definitzen du. Hiru literaturek dagite erreferentzia mende hasieran eta batez ere Primo de Rivera-ren diktadura eta gero, literatura guztiak Bigarren Errepublikan jasaten duten loratze zail baina patenteari, ia literatur sistema bihurtzeko punturaino bilakatzen baitira literaturok, Bourdieuren terminologian. Era berean, Francoren heriotzaren ondotik, artikuluko ezberdinek garbi azaltzen dute emakumezkoen literaturak azkenik, salbuespenen kronika izatetik, talde lan eta sistema bihurtzera iragaten direla. Alegia, egun emakumezko idazleek elkarren berri dute, elkarren laguntza ere jasotzen dute, eta “emakumezko literatur” kontzeptuarekiko oso erreakzio desberdinak badituzte ere (errotikako ukapenetik feminismo militanterara), errealtate sozial eta kultura direla badakite, oraindik ere emakumezko idazle izatea zail bada ere. Carme Rieraren konplexutasun teorikoa eta arrakasta publiko zein politikoa, momentu honen adierazle argien dira (Kathleen M. Glenn “Seducción, transgresión y marginalidad en la narrativa de Carme Riera”).

Hala, liburu honen helburu nagusia idazleak berak aurkeztea da, gehienetan idazle (talde) bakoitzari artikulua bat eskainiz, beharrezkoa den baina era berean zaharkitua bihurtzen ari den eredu filologiko zaharrari eutsiz. Liburuak berak garbi uzten du aginte instituzional eta kulturalak indar handia dutela, eta gehienetan ez onuragarria, emakumezkoen idazketan. Carmen Larrañaga Odriozolak emakumezko bertsoari eskaintako kapitulua (“Teatralidad y poéticas alternativas”), maila honetan paradigmatikoa dugu, eta aurrerantzean halako artikulua gehiago irakurtzea espero dugu. Izan ere berriro ere kontraesan oso garrantzitsu bat esploratzeko beta ematen baitigu liburuak: demokraziak direla agian multikulturalismoa sortarazten duten eredu politikoa garrantzitsuena baina era berean sorkuntza horiek luzarora gehien oztokatzen dituen. Azkenik, absentsia bat ere aipatu nahi nuke hiru hizkuntz sailetan komuna dena: emakumezkoen literaturan hain garrantzitsu izan den lesbianismoaren gaia ez da inon zuzenean aipatzen. Itxaro Borda, Marilar Aleixandre, edota Maria Mercè Marçal, idazle garrantzitsu baina era berean marjinal dira beren literaturetan eta eskuarki oso idazketa desberdinak aurkezten dituzte. Hala, pena da, gai honek espazio propiorik liburu honetan ez izateak.

Hiru literaturon artean bada desberdintasunik ere. Lehen desberdintasunik garrantzitsuena diskurtso kritikoena da. Alegia, literatur katalanaren eta galiziarren kasuan, eta batez ere sarrerek adierazten duten bezala, bi tradizio kritikoek ezagutzen dute kritika feminista eta berarekiko posizionatuz eta berarekin elkarrizketatuz eraikitzen dute beren tradizio kritiko propioa. Aitzitik, euskal literatur kritikaren kasuan diskurtso kritiko feministarekiko erreferentzia ia ez da existitzen, salbuespenak salbuespen, eta aitzitik diskurtso soziologikoak, beste kritiketan ez bezala, indar handiagoa du. Hala, Christina Duplaa-k alde katalanetik (“Presentación”) eta María Jesús Fariña Busto eta Beatriz Suárez Briones-ek alde galiziarretik (“Presentación”), beren literatur tradizioen eztabaida ikuspegi feminista kritikoan oinarrituta aurkezten badute ere (“idazketa femeninoa” bezalako kontzeptuak eztabaidatuz), Linda White-ren aurkezpenak (“Escritoras vascas del siglo XX”) premia soziologiko larriago bati erantzuten dio: tradizio bat existitzen dela, izen zerrenda baten bidez eta estatistikak gehituz, baieztatzea. Era berean, eta euskal sekzioan, besteetan ez bezala, orrialde erdiak ez dira emakumezko idazleei dedikatzen baizik eta gizonetako emakumeei buruz idatzitakoei (Lourdes Otaegi Imaz

“Lizardi y las mujeres”; Aurelia Arkotxa Scarcia “La mirada malévola de la luna en La ahijada de J. Mirande”; Ana María Toledo “El personaje femenino en la novela costumbrista vasca”; Eukene Martín Sampedro “Descripción del personaje femenino en la cuentística moderna”). Oro har, diskurtso patriarkal eta maskulinistaren kritika feminista onuragarria eta aberasgarria bada ere, hain zuzen heldutasun maila bat markatzen baitu, euskal literatur kritikaren kasuan, zoritxarrez eta aitzitik, kritika honen behin-behinekotasuna eta zailtasuna adierazten du. Izan ere, kritiko gehienek beren doktoretza tesiak gizonezko idazle hauei buruz idatzi dituzte eta beraz berauen kritika feminista urrats bat aurrera da. Tamalez, Linda Whitek sarrean aipatzen dituen emakumezko idazle askok ez du kritikarik sarrerari darraizkion artikuluetan. Anonimatu kritiko hau ez da intentziozkoa; euskal kritika feministaren behin-behinekotasun eta berritasuna adierazten du (alde honetatik Igone Etxebarria Zamalloa-ren “Escritoras vascas en el primer tercio del siglo XX” iraultzailea da, besteren artean kanon maskulinoa birpentsatzeko). Beraz benetan interesgarria izango litzateke desberdintasun kritiko honen arrazoi historiko eta intelektualak aztertzea, berak emango bailiguke pistarik onena euskal literatur eta kultur praktika bere osotasunean ulertzeko.

Beste desberdintasun handia klasearena da. Alegia idazketa beti ere klase sozial baten pribilegio izan bada ere, literatur katalanaren indarra eta hedapena, klase burgesak hizkuntz katalanarekiko izan duen atxikimendu sozialaren ondorio historiko bezala azaltzen da liburu honetan. Aitzitik, galiziar eta euskal literaturen garapen ahul eta berantiarra, hain zuzen klase sozial antzekoen bultzatzerik ez izatearen ondorio ditugu. Zentzu honetan, Lourdes Otegi Imazek Lizardiren gainean idatzitako artikulua paradigmatikoa da, izan ere bertan garbi azaltzen da euskal emakumeen jaugina euskalduna ez zen modernitate bat, modaren bidez, besarkatzeko. Era berean, eta Rosalia de Castroren eredu paradigmatikora itzuliz, Carmen Blanco-k argi uzten du bere artikuluan, emakumezko galiziar gehiengoak, oso pobrea eta analfabetoa oro har, ezin zuela Castroren lana irakurri beronen poesia-aren sujetu eta erreferente bazen ere.

Azkenik, bada aurreko gaiarekin lotuta datorren hirugarren desberdintasun bat. Sekzio katalanak, Erdi Aroko salbuespenetik at, artikuluen gehiengoak eleberriri dedikatzen dizkio, klase ertainek, idazketak eta ikuskera modernoak elkarrekin izan duten lotura, bere sendotasun katalanean, azpimarratu nahiz edo. Aitzitik, tradizio galiziarrean, eta Rosalia de Castro-k utzitako tradizioa zela medio (poesia galizieraz idatzi bazuen ere, eleberriak gazteleraz izkiratu baitzituen), poesia eta eleberraren generoen arteko kinka historikoa azaltzen da nagusi, emakumeek eleberraren generoan barneratzeke izan dituzten gatazkak azpimarratuz (Maria Camino Noia Campos “La narrativa gallega de mujeres”), eta teatroari ere (Mónica Bar Cendón “Escritoras dramáticas gallegas”) garrantzia emanaz. Euskal tradizioan ere, bertsolariak eta umeen kontakizunak (Mari Jose Olaziregi Alustiza “El universo literario de Mariasun Landa”) zein garrantzi handia duten azaltzen zaigu, berez Euskalerrian eta Franco-ren heriotzaz gero, eleberrri kanonikoak izan duen garrantziari kontrajartzen zaizkionak. Poesiak ere euskal sekzioan bere lekua du (Amaia Iturbide Mendiñeta “Aproximación a algunas poetas vascas contemporáneas”), eta kritika oraindik ere kanon filologiko inpresionisten bidetik idatzita badago ere, emakumezko poeten leku garrantzitsua maisuki aurkezten du. Kasu katalanean salbuespen bat badugu eta berau azpimarratzea ere justuziazko gure hemen, izan ere Montserrat Roig-ek testigantza literaturan egin zuen sarrera berriak leku aparta eta berezkoa dauka liburu honetan. Gainera Duplaa, Roig-en testigantza literatura aztertzeke (“Vida, literatura y Barcelona”), kritika latinamerikarraren ekarpena estatu espainiarrean hedatzen lehenengoa dela azpimarratu behar dugu.

Puntualkiago, esan behar dugu sekzio galziarraren sarrera benetan kritika feministaren puntan ezartzen den pentsaketa sakona dugula, kritika hark Galizian urteotan izan duen eztabaidaren eta pentsaketaren fruitu umo baita (María Jesús Fariña Busto eta Beatriz Suárez Briones "Presentación"). Euskal kasuan, eta arazo teknikoak badugu ere, Lizardi edota Mirande bezalako autoreak ez ditu ez sarrera orokorrak ez artikulu berezien sarrerak azaltzen eta beraz irakurle ez euskaldunari zail izango zaio idazleon garrantzi kanonikoa ulertzea.

Hasieran nion, bazela oraindik beste pauso bat hartu beharra, liburu honek aurkezten duen proposamen aberatsa eta ereduzkoa aurrera bultzatzeko. Hain zuzen, Iris Zavalak zuzendutako literatur bildumari begiratuz gero, gaur irazkitzen ari garen liburu hau bildumako seigarren liburukia dugula baieztatu dezakegu. Aurreko bostak pentsamendu kritiko feministari (1. liburukia) eta garai desberdinetako gaztelerazko emakumezkoen literaturari (2-5 liburukiak) eskainiak dira. Beraz, seigarren liburukia, beste hizkuntza espainiarrei eskainia, dena den, logika suplemental bati erantzunez idatzia da, gaztelera enbor izanik eta beste hizkuntzak ondoko suplementu. Alegia, egituraketa suplementar honek argi uzten du, arrazoiak historikoak badira ere, literatura espainiarra gaztelerazkoa dela bakarrik, eta beste hizkuntzak ez direla literatura espainiar; izan ere lehen bost liburukietan, bildumaren enborra, beste hizkuntzetan idatzitako literatura ez baita aipatzen. Beraz uste dut liburu hau abiapuntu garrantzitsua izan daitekeela, gerora, literatura espainiarraren historia orokor bat bere hizkuntza guztietan, batera, idazten hasteko, logika suplementarra alde batera utziz. Izan ere, bestela bi emakume espainiar mota izango ditugu: gazteleraz idazten dutenak eta beste hizkuntzetan idazten dutenak. Halako banaketa suplementarra pentsaera feminista kritiko guztien aurka doa (Hirugarren Munduko kritika feminista lekuko). Espainiako literatura, emakumezko espainiar guztiek idazten duten literatura bezala ulertzen ez den artean, logika suplementarra atzean utziz, kritika literario hau ez da benetan feminista izango, "emakume normalak" eta "suplementarrak" dauden iritzian oinarrituko baita. Pentsamendu eta kritika feminista berri honi "postnazionala" dei diezaiogegu. Kritika postnazional hau emakumezko idazle guztien historia eta errealtatea bere konplexutasunean aztertzen hasten denean, berriro ere beste pentsamendu mota askorentzako eredu eta abiapuntu bihurtuko da, eta "estatua" bezalako instituzioak bere konplexutasun betean kritikatzeko gauza izango da. Agian orduan, Itxaro Borda euskal idazle frantsesaren estatusa pentsatzeko gauza ere izango gara, "espainiarra" den bilduma honetan.

Joseba Gabilondo